

## Azken itzulia

[Egile ezezaguna]

*Berría*, 2004-10-05: XII.

*Martin Ugalde kultur parkeko langileek omenaldia egin zioten atzo arratsaldean kultur eragileari.*

Bere izena daraman kultur parkeko langileek egunotan emango dizkioten agurretako lehena eman zioten atzo arratsaldean Martin Ugalderi. Euskal kulturako eta politikako hainbat ordezkari lagunduta, parkeko langileek Ugalderen lana gogoratu zuten, non eta idazle eta euskaltzaleak Andoaingo kultur guneko lehenengo harria jarri zuen tokian bertan.

Joan Mari Torrealdaik *Egunkaria*-ko Administrazio Kontseiluan izan zuen kide Ugalde, eta 2002ko ekainean, kultur parkearen inaugurazio ekitaldian esandako hitzak ekarri zituen gogora atzo: "Martin familiako dugu, *Euskaldunon Egunkaria*-ko ohorezko lehendakaria, eta, hasieratik, *Egunkaria*-ko eragile eta lankide fina. Hori guztia nahikoa ez balitz, badugu bestelako arrazoirik ere kultur parkeari haren izena emateko. Martin euskaltzale eta abertzaleari, kazetari eta idazleari eskaintzen diogu parkea; hitz batean bere ibilbide osoari". Parkeak berak Martin Ugalderen filosofiaren ardatz izan zen elkarlana bultzatu duela gaineratu zuen Torrealdaik.

Torrealdaiz gain, *Egunkaria*-ren Administrazio Kontseiluko kide izandako Txema Auzmendi eta Iñaki Uria ere joan ziren kultur parkera, eta han izan ziren Joxean Lizarribar Euskarazko Komunikazio Taldeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria, Joan Mari Larrarte idazkaria eta Martxelo Otamendi BERRIAko zuzendaria ere. Halaber, Xabier Mendiguren Bereziartu Kontseiluko idazkari nagusiak eta Mikel Arrizabalaga Euskalgintza Elkarlanean Fundazioko kudeatzaileak ere hartu zuten parte ekitaldian.

Hain zuzen ere, Arrizabalagari egokitu zitzaion orain dela lau urte, kultur parkeko lehen harria jartzean, Ugaldek esan zituen hitzak gogoraraztea. Hitzaldi hartan, Andoainera itzuli zen lau aldiak gogoratu zituen idazleak, eta orduko hartan geratzeko zetorrela aipatu zuen.

Politikako eta sindikalismoko ordezkariak ere bat egin zuten *Egunkaria*-ren bultzatzaileari azken agurra emateko orduan. Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, German Kortabarria ELAko komunikazio arduraduna eta LABeko idazkari nagusi Rafa Diez eta Batasuneko mahaikide Arnaldo Otegi, Fernando Barrena eta Joseba Alvarez izan ziren, besteak beste. Ainhoa Etxaide LABeko zuzendaritzako kideak eta Joxean Barandiaran Andoaingo alkate ohiak ere parte hartu zuten herriko seme kutunari eginiko omenaldian. Horietaz gain, kultur parkean izan ziren Jose Luis Sukia Partaide ikastolen elkarteko ordezkaria, Josu Juaristi *Gara* egunkariko zuzendaria, Sebastian Lizaso bertsolaria eta Txalaparta argitaletzeko Iñaki Egaña eta Eider Rodriguez.